



ZUZENBIDE-OINARRIAK

Lehenengoa.- Karateko eta Diziplina Elkartuetako Bizkaiko Lurralde Federazioko batzarreko, zuzendaritzako eta presidentetzako hauteskundeak arautzen dituen Hauteskunde Araudiaren 8.3 artikulua azaltzen duenaren arabera, «*hauteskunde errekurtsok ebazten dituen Hauteskunde Batzordearen ebazpenek federazio-bidea agortzen dute; ebazpen horien aurka errekurtsoa jar daiteke Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean, ezespren-ebazpenetik kontatzen hasi eta zazpi laneguneko epean (...)».*

«*Ezespren-ebazpenetik*» esaten duenean uste dugu ebazpena interesdunei jakinarazten zaienetik kontatzen hasita ulertu behar dela.

Aztertzen ari garen errekurtsoa epez kanpo aurkeztu izan da, gainditu egiten baitu Hauteskunde Batzordearen ebazpenen aurka Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean jarri behar diren errekurtsoentzat Hauteskunde Erregelamenduaren 8.3 artikulua ezarria duen zazpi laneguneko epea. Izan ere, xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak berak aitortzen du 2016ko abenduaren 23an jakinarazi ziotela Hauteskunde Batzarraren erabakiak jasotzen zituen 10 zenbakidun Akta, eta horiei urtarrilaren 9ra arte ez ziela jarri errekurtsoa, epea jada igaroa zenean.

Horrenbestez, ezetsi egin behar da xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak aurkeztutako errekurtsoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 116. d) eta 119.1 artikuluetan ezarritakoari jarraituz.



Bigarrena.- Dena dela, informazio-ondorio hutsetarako, errekurtsua ezetsi egin behar baita, xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak argudioak azaltzen egindako ahalegina dela-eta uste dugu komeni dela errekurtsorearen edukiari buruzko zehaztapen batzuk egitea.

Lehen-lehenik, ez da ahaztu behar Kirol Justiziako Euskal Batzorde honi hauteskudearen arloan eman zaion eskumen bakarra Euskadiko Kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 128.b) artikuluan aipatzen dena dela, eta baita Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.b) artikulua ere, zeinak honela baitio:

«Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako eskumen hauek ditu:

(...)

b) Kirol federazioetako hauteskunde batzarren erabakien aurka jarritako errekurtsuak aztertzea eta ebaztea».

Ildo horretan, beraz, eta xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak aurkeztutako azken idazkietan ez bezala, ez zuten identifikatzen aurka egiten zion Bizkaiko Karate Federazioko Hauteskunde Batzordearen erabakirik, eta Kirol Justiziako Euskal Batzordeak ez zituen horregatik izapidetzera onartu 2017ko martxoaren 16an onartutako erabakian; hemen aztertzen dugun kasuan, ordea, identifikatuak zeuden erabakiak, Hauteskunde Batzarraren akta bakar batean jasoak baitzeuden, 2016ko hauteskunde prozesuaren 10. zenbakidunean, hain zuzen.

Hirugarrena.- Bestelako kontua da (epea kanpoko izateaz gain) erabaki horien zein zatiren aurka egiten den zehazki, eta zein helbururekin.



Izan ere, errekurtsua «*akta honetan azalduak izanik aurretik horien aurka egin ez den Hauteskunde Batzordearen adierazpen edo ebazpenen aurka zuzentzen da. Lehendik horien aurka errekurtsua jarrita dauden adierazpen edo ebazpenei buruz, idazki honek auzia argitzeko balio behar du, bai norbanako batek aurkeztua izan bada bai jende gehiagori eragiten badie*».

Hortaz, eskaera eta argudioak sakabanatuta ageri dira, eta ezin da zehaztu zer helburu duten ez eta nori zuzenduak diren. Argudio-sakabanaketa horren aurrean, Kirol Justiziako Euskal Batzordeari behin eta berriz ezinezkoa zaio alegazio horiek era zuzen eta egituratuan aztertzen hastea.

Halaber, dagokigun errekurtsuaren azken xedea, interesdunak berak adierazten duenez, «*Hauteskunde Batzordeak ebazpen hori 2016ko hauteskunde hauetan gertatu diren irregulartasunak aztertzeari uko egiteko argudio bezala erabiltzea saihestea*» da.

Alegia, errekurtsogileak 2016ko azaroaren 22an hartutako erabaki zehatzen aurka egitean ez da ikusten benetako onura juridiko edo ekonomiko batek bultzatuta egin duenik, Hauteskunde Batzordeak erabakitako guztiaren aurka egiteko dinamika hutsa baino ez da, izan, eta desitxuratu egiten du nolabait administrazio-errekurtsu orok izateko duen arrazoia.

Izan ere, Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salaren 2014ko ekainaren 13ko Epaiak dioen moduan, «*legitimazio aktiboa ematen dion subjektuaren eta uziaren objektuaren (aurkaratutako egintzaren) arteko erlazio unibokoak zera dakar, egintza baliogabetuz gero berehalako efektu positiboa (onura) dakarrela edo efektu negatibo (kaltea) bat eragozten dela, unean bertan edo gerora; eta, ondorioz, esan nahi du administrazio-ebazpenak legitimazioa alegatzen duen subjektuari dagokion esparru juridikoan eragin*



dezakeela, zuzenean edo zeharka baina era eraginkor eta egiaztatuan, hots, ez era hipotetiko hutsean, izangai den edo gerora gerta daitekeen zerbaiten moduan; eta, nolana ere, egiazkoa eta zehatza izan behar du, eta beraz, ez da nahikoa abstraktuki eta orokorrean aipatze hutsarekin edo gertagarri izate soilarekin».

Laugarrena.- Bizkaiko Karate Federazioaren Hauteskunde Batzordearen 10 zenbakiko aktaren argitan, ondorioztatzen da xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx eta xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunek aurkeztutako idazki batzuei erantzuna ematera datorrela.

Horren aurretik, 2016ko azaroaren 18an Hauteskunde Batzordeak hauteskunde prozesua astebetez etetea erabaki zuen, aipatu idazkiek «*sortutako egoera juridikoa sakon aztertze aldera*».

Aipatutako aktak zortzi erabaki jasotzen ditu, honako hauek:

Aurreneko biak xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunari buruzkoak dira; xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak, dena dela, hausnarketa batzuk egiten ditu. Gogora dezagun xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jauna ez dela xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunaren legezko ordezkaria, eta beraz, ezin da haren izenean aritu, ezpada espedienteak ikusteko, eta xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jauna gaitu du berariaz horretarako.

Hirugarren puntua, aktan jasotzen den moduan, aurretik azertuak, eztabaidatuak eta ebatziak izan diren kontu batzuei buruzkoa da, horien errepikapena da; horregatik, Hauteskunde Batzordea aurrekoetan erabakitakoari lotzen zaio besterik gabe, bereziki 2016ko urriaren 26ko 4. zenbakidun aktari.



Laugarren puntua, berriz, xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak egindako eskaera aipatzen du, esaten baitu «*jakinarazpenak modu fede emailean igor diezazkiotela eta bere idazkiei banan-banan erantzun diezaiotela*», hortaz, Hauteskunde Batzordearen erabakiak esaten duen moduan, «*ez da berez egintza edo ebazpenen baten aurkako errekurtsio edo erreklamazioen bat*».

Hauteskunde Batzordeak bosgarren erabakian ez du ere uste xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak bosgarren puntuaren goiburuan identifikatutako idazkian azaltzen dituen kontuak «*berez benetako erreklamazio edo aurkaratze bat eratzen dutenik*»; horrenbestez, Hauteskunde Batzordeak aurretik hartuak dituen bere erabaki eta ebazpenetara igortzen du.

Bosgarrena.- Hauteskunde Batzordeak, aldiz, formalki zuzentzat jo du (epe barruan eta pertsona legitimatuak gauzatua) hauteskundeen emaitzen kontrako aurkaratzea. Emaitzak organo horrek behin-behinean ontzat eman zituen 2016ko urriaren 28ko aktan (5. zk.).

Alabaina, erreklamazioaren funtsari buruz, hauteskunde erroldan eta hautagaien onarpenean gertatutako balizko irregulartasunez alegia, Hauteskunde Batzordeak zera egokiesten du, eta gure ustean zuzen egokietsi ere, «*errolda onartzeko eta hautagaiak behin-behinean nahiz behin betiko onartzeko erabakiak aurkaratu zitezkeen eta aurkaratuak izan behar ziren*», baina, hala egin ez zenez, «*erabaki horiek, Hauteskunde Batzorde honentzat, irmoak dira*».

Arrazoi du xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak Bizkaiko Karateko Lurralde Federazioaren hauteskunde alorreko erroldari edo hautagaiei buruz informazioa erreklamatzeko duenean. Aztergai dugun errekurtsioan azaltzen



duenez, *«hautagaiok egiaztatzeko aukera izan behar dugu horietan zeintzuk duten parte hartzeko eskubidea»*.

Arazoa ez da eskubidea badenik edo ez denik, badenaz ez baitu inork zalantzarik, hori nola egikaritzen den baizik.

Izan ere, Karateko eta Diziplina Elkartuetako Bizkaiko Lurralde Federazioko batzarrerako, zuzendaritzarako eta presidentetzarako hauteskundeak araututa dagoen prozedura bat da, eta egin beharreko izapideak era antolatuan daude, lehen-lehenik indarreko Hauteskunde Araudiak dioenaren arabera, eta, gero, aplikagarria den gainerako araudiaren arabera.

Horrekin esan nahi duguna da eskubideez osotasunean baliatu nahi bada behar bezala egikaritu behar direla. Eta egikaritze horretan berebiziko garrantzia du faseak zein izapideak elkar zuzen kateatuta egotea, eta gauzatuak hala nola, kasua bada, aurkaratuak izateko den denbora.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 29. artikulua ezartzen duenez, *«lege honetan edo beste batzuetan ezarritako epe-mugak eta epeak bete beharrekoak dira gaiak izapidetzeko eskumena duten administrazio publikoetako agintari eta langileentzat eta gai horietako interesdunentzat»*.

Zeren eta, administrazio-prozedura oro izapide-segida bat denez (kontuan izan federazioetako hauteskunde prozesuen kontrola kirol federazioek eskuordetzaz duten administrazio-eginkizun publiko bat dela, Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 14.2.j) artikulua dioenaren arabera), **preklusioak** -prozedura-iraungipenaren aldagaitzat ulertuta- epe laburra eskatzen du ezartzea prozedura-egintzak elkarren segidan burutzen joateko; horrenbestez, bada, egintza bati dagokion epea amaitua baldin bada,



ezin da dagoeneko hori egin, galdu edo amaitu egiten baita horretarako eskubidea, eta hurrengo fasera igaro behar da (Auzitegi Gorenaren 1994ko urtarrilaren 29ko Epaia).

Epeak eta baldintzak ez dira gero formalismo hutsa, legegileak ezarri dituen benetako mekanismoak dira prozeduraren behar bezalako antolamendurako. Horrek esan nahi du interesdunek epe barruan egin behar dituztela euren jarduketak.

Seigarrena.- Doktrina hori eskuartean dugun kasura ekarrita, xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunaren administrazio-espedita iritziak adierazten dituen edo erabaki eta ebazpenak aurkaratzen dituen idazkiz beteta dago, baina dagozkien fase eta epeak errespetatu gabe egina dago, zenbait argudio behin eta berriz errepikatzen dituelarik, izapide prekluitua izanik ezin garena, bestalde, aztertzen hasi, bere garaian ez delako jarraitu aurkaratzeko ezarritako era zuzena.

Aipatutako hauteskunde prozesua arautzen duen hauteskunde araudiak honela dio 7. artikuluan: «*Hauteskunde Mahaiak edo Hauteskunde Batzordeak hartutako erabakien kontra errekursoak aurkez daitezke Hauteskunde Batzordearen beraren aurrean, Kirol Justiziako Euskal Batzordeari dagozkionak izan ezik, jakinarazten edo, kasurako, argitaratzen direnetik hurrengo bi laneguneko epean. Epe horretan ez bada errekurtsorik jarri, erabakiak edo ebazpenak irrimoak izango dira*».

xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak, berriz, bere errekurtsuan dio «*hauteskunde-araudiak ez ditu zuzen planteatu hauteskunde-egutegiko denborak. Oso epe laburrak ezarri ditu hauteskundeko etapak burutzeko, eta larunbat eta igandeak egun baliiodun gisa kontatu ditu...*».



Gauza bat da epeak laburrak izatea, halaxe dira-eta objektiboki, eta bestelakoa, berriz, zuzenak ez izatea.

Epe horiek, batetik, foru agindu bidez onartu izan dira gainerako hauteskunde-araudiarekin batera, eta, bestetik, interesdun guztiei berdin-berdin aplikatzen zaizkie, eta beraz, errespetatu egiten dira administrazio-jardueraren oinarritzkoetako printzipio bi, legezkotasuna eta berdintasuna, alegia.

Gainerakoan, errekurtsioan ez da azaltzen non datzan aplikatze oker hori (hauteskunde-araudia lanegunez ari denean jai-egunak baztertu egiten dira, eta egutegiko egunez ari bada, berriz, barne hartzen dira), epeak laburrak izateaz landa; antzeko hauteskunde prozesuetan normalak dira horrelako epe laburrak, eta, zenbaitetan eskubideak egikaritzeko benetan deseroso bilakatzen bada ere, ez du legez kanpoko ezer ezartzen.

xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak bere erreklamazio-jarduerak era antolatuan eta araubideari lotuta egiten ez dituen bitartean Kirol Justiziako Euskal Batzorde honi ezinezkoa zaio azaldutako auzien funtsa aztertzen hastea.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, honako hau

ERABAKITZEN DU

Ez onartzea xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak Karateko eta Diziplina Elkartuetako Bizkaiko Lurralde Federazioaren Hauteskunde Batzordeak 2016ko azaroaren 22an «10. zenbakiko Akta» deitutakoan hartutako erabakien aurka aurkeztutako errekurtsioa.



Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaiokete Kirol Justiziako Euskal Batzordeari, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Bilboko Epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa erregulatzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko apirilaren 11

JOSÉ LUIS AGUIRRE ARRATIBEL

Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea